

4

GIDA DIDAKTIKOA:

GIZAKIA NOLA SORTU ZEN (HEGO AMERIKA)

AURKIBIDEA:

Gida didaktikoaren azalpena	1. or.
Helburuak	2. or.
Ekintzak	3. or.
Gidoi literarioa blokeka eta denborak zehaztuz	12. or.
Bibliografia	16. or.
Egileak	17. or.

GI DA DIDAKTIKOAREN AZALPENA

	Etapako helburuak	2. zikloko edukiak
Ahozko hizkuntza	Ezagutzak eraikitzeke zein harreman pertsonalak garatzeko, gelako elkarrizketetan euskaraz parte hartzea, koherentziaz, elkarrizketaren arauak aintzat hartuz eta kooperaziozko jarrera adieraziz.	Gelan ematen diren azalpenak ulertzea, bai lana antolatzeakoak, bai ezagutzak eraikitzeakoak. Berdinen arteko elkarrizketa ikasteko tresna gisa erabiltzea.
	Hainbat eremutan ahoz komunikatzea, koherentziaz, egoeraren ezaugarriei erreparatuz eta hizkuntza-arauak aintzat hartuz.	Komunikazioko egoeraren ezaugarriak bereiztea, hala nola hartzailea eta helburua. Ikastetxean euskaraz komunikatzeko ohitura garatzea, ikasteko, jolasteko eta harreman pertsonaletarako. L2an komunikatzeko konfiantza eta ekimena garatzea. Ahozko testuak ekoiztea: narrazioko elkarrizketa. Ahozko komunikazioan ahotsaren kontrola lortzeko ekimena adieraztea.
	Interakziozko egoeretan komunikazioa sustatzen duten alderdiak aintzat hartzea.	Solaskideek hizkuntzaz egiten duten erabilerari begirunea izatea. Euskara ikasten ari direnen ahoskatzeari zein ekoizpenei begirunea adieraztea eta laguntzazko jarrerak garatzea.
Hizkuntza idatzia	Testu idatziak ulertzea eta interpretatzea, egoera berrietan aplikatu ahal izateko.	Irakasteko helburua duten testuak ulertzea, hala nola helburu didaktikoa dutenak zein eguneroko bizitzan erabiltzen direnak: azalpen mitologikoak.
	Gelako jarduerak burutzeko, testu idatzietan dagoen informazioaz baliatzea ezagutzak eraikitzeke.	Informazioa integratzea, identifikatuz, sailkatuz eta erkatuz. Hizkuntza idatzia komunikatzeko eta ikasteko tresna gisa balioestea.
	Gelako jarduerak burutzeko, grafikoetan dagoen informazioaz baliatzea ezagutzak eraikitzeke.	Hizkuntza idatziaren eta grafikoaren arteko ezberdintasun nagusiak bereiztea.
	Hainbat eremutan idatziz komunikatzea, koherentziaz, egoeraren ezaugarriei erreparatuz eta hizkuntza-arauak aintzat hartuz.	Ereduetatik abiatuz, testuak berridaztea. Ekoiztiko dituen mezu idatziak hartzaileari eta helburuari egokitzea. Elementu grafiko eta paratestual xumeak erabiltzea. Laudutako testuak identifikatzea: kondaira. Laudutako testuen egitura identifikatzea: narraztailea eta elkarrizketa.
Hizkuntzaren gaineko hausnarketa	Eremu guztietan ahoz zein idatziz eraginkortasunez komunikatzeko, hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea.	Ahozko eta idatzizko komunikazioen testuinguruak bereiztea. Ikasgelan lantzen diren testu-generoak identifikatzea, elementu paratestualei zein testualei erreparatuz. Testuen transformazioak egitea: kondaira aldatzea. Testuen atal batzuen izenak zein hizkuntza-sistemaren osagai batzuen izenak ikastea: <ul style="list-style-type: none"> Kondaira eta narrazioetako narraztailearen eta pertsonaien elkarrizketak. Hizkuntza idatzia balioestea hainbat eremutan.
	Hizkuntzak ikasteko eta hobesteko konfiantza adieraztea.	
	Hizkuntzen sistemari buruz hausnartzea, ezagutzen dituenak zuzen erabiltzeko.	Testua komunikazio-unitate gisa ulertzea. Oinarrizko arau ortografikoak ezagutzea: esaldiko puntua, paragrafoko puntua. Oinarrizko arau ortografikoei begirunea izatea: esaldiko puntua, paragrafoko puntua. Ergatiboa eta NOR deklinabide-markak.

EKINTZAK:**A) TESTUAREN ETA LANAREN GAINEKO HAUSNARKETA, TALDE HANDIAN:**


1. Ulertu bideoaren zati hau, eta erabili kontrol-zerrenda ateratzeko.

MARI: Gizakien sorrera.


MARI: Maia herriaren sinesmenen arabera, hasieran zeruak eta itsasoa baino ez ziren.



Maiek hamahiru zeru zirela uste zuten, bata bestearen gainean eta denak Lurraren gainean. Zeru bakoitzean, *Oxlahuntiku* jainko bat bizi zen. Lurra krokodilo baten isatsaren gainean zegoen, eta krokodiloa, berriz, itsasoan zegoen.



MARI: Lurraren azpian, bederatzi mundu ziren, eta haietako jaunak *Bolontikuak* ziren. *Bolontikuek* txandaka gobernatzen zituzten beren munduak.




MARI: Hasieran, ez zen izaki bizidunik. Itsasoko ura, geldi-geldi, eta zerua besterik ez zen. Isiltasuna zen nagusi.



Baziren, ordea, jainko sortzaileak. Suge lumadun argitsuak ziren. Bada, behin, animaliak sortzea erabaki zuten. Trumoiak hitz egin zuen lehenengo. TRUMOIA: Sor daitezela animaliak! TRUMOIA: Sor daitezela landareak!



TRUMOIA: Animaliek ez digute oparirik egiten, ez digute esker ona adierazten.




EGUZKIA: Beste izaki bat sortu behar dugu, hitz egiten dakiena, eta, hartara, eskertuko digu sortu izana.



TRUMOIA: Buztinez ezin da egin. Urak urtu egiten du.



MARI: Orduan, zurez egitea pentsatu zuten.



TRUMOIA: Oraingoan ere ez dugu bete-betean asmatu. Ezin da mugitu, eta, hortaz, hitz egin ere ezin du.



MARI: Orduan, arto-irina erabiltzea pentsatu zuten. Orea prestatu zuten, eta gorputza egin zuten.



2. 2. HOBETO IDAZTEKO:

Kondaira askotan adierazten dute nola sortu garen; hona hemen batzuk:
Irakurri, eta jarri falta diren puntuak.

2.A) AZTEKEN ARABERA, HONELA SORTU GINEN:

Quetzalcoatl jainkoa lur azpira joan zen, hildakoen herrira, eta, hezurak hartu ondoren, bere odolaz busti zituen eta gizakiok sortu ginen

2.B) YORUBA HERRIAREN ARABERA, HONELA SORTU GINEN:

Zeruaren Jainkoak, Olorun-ek, kate bat jaurti zuen zerutik lurreraino bere seme Oduduwa jaitsi zedin Oduduwak oilo berezi bat zeraman eta hazi batzuk Lurrera heltzean, lur puska bat lortu zuen eta oiloak lurra erauzi zuen haziak ereiteko hazietatik zuhaitz bat sortu zen zuhaitzari hamasei adar sortu zitzaizkion hamasei adar horietatik gizakiok sortu ginen

Gogoan izan puntuak falta zaizkiola. Jakingo zenuke puntuak jartzen?

2.C) BOSHONGO HERRIAREN ARABERA, HONELA SORTU GINEN:

Hasieran, iluntasuna zen eta Bumba jainkoa bakar-bakarrik zegoen halako batean, tripako mina sentitu zuen eta, botaka hasi zenean, Eguzkia bota zuen Horrela, argia nagusitu zen Eguzkiak iluntasuna lehertu zuen

Berriro tripako mina sentitu zuen, eta izarrak eta Ilargia bota zituen horrela gaez ere argia zegoen

Tripako mina berriz sentitu zuenean, lehoiabarra, arranoa, krokodiloa, arraina, dortoka eta tximista jaurti zituen horrez gain, koartza zuria, kakarraldea, ahuntza eta azkenik gizakiak tximista, animaliak eta gizakiak ugaltu egin ziren


Animaliak eta gizakiak ondo portatzen ziren tximistak aldiz ez Hori dela eta, zerura eramantzen zituzten eta han daude betirako gordeta baina gizakiak surik gabe geratu ziren orduan, Bumbak irakatsi zien sua egiten zehaitzetako adarrak erabiliz

Bumba oso pozik geratu zen bere lana ikustean eta gizakioi esan zien sortutako guztia beren gozamenerako zela


Gogoan izan puntuak falta zaizkiola. Jakingo zenuke puntuak jartzen?

“K” LETRAREN FUNTZIOA OSO GARRANTZITSUA DA, zerbait nork edo zerk egin duen adierazten baitu: NORK EGIN DU? ZERK ERAGIN DU?

Ura
urtu du.



Animaliek ez
digute
oparirik
egiten, ez
digute esker
ona
adierazten.



Baina ekintza batzuen egilea ez da K letraz markatzen:

Bumba jainkoa bakar-bakarrik zegoen.

Argia nagusitu zen.

Hona hemen esaldi batzuk. Ekintza berdina gertatzen da guztietan, baina batzuetan K batez adierazten dugu nork egin duen, eta beste batzuetan ez. Pentsa ezazu; baietz zergatia aurkitu!

Ni margotu naiz.

Nik marrazkia margotu dut.

Niri marrazkia margotu zait.

Nik margotu zaitut.

Nik marrazkia eman dizut.

Ni margotuta nago.

Hurrengo testuan, hutsuneak osatu behar dituzu: *ekintzaren egilea zein den jarri beharko da.* (Bide batez, ziurtatu puntuazioa ondo jarri duzula).

*Hasieran, iluntasuna zen eta **Bumba/Bumbak (?)** jainkoa bakar-bakarrik zegoen. Halako batean, **Bumba/Bumbak (?)** tripako mina sentitu zuen, eta, botaka hasi zenean, Eguzkia bota zuen. Horrela, **argia / argiak (?)** nagusitu zen. **Eguzkiak / Eguzkia (?)** iluntasuna lehertu zuen.*

*Berriro **Bumba/Bumbak (?)** tripako mina sentitu zuen, eta izarrak eta Ilargia bota zituen. Horrela, gauez ere argia zegoen.*

Tripako mina berriz sentitu zuenean, lehoinabarra, arranoa, krokodiloa, arraina, dortoka eta tximista jaurti zituen. Horrez gain, koartza zuria, kakarraldoa, ahuntza eta, azkenik, gizakiak. Tximista, animaliak eta gizakiak ugaltu egin ziren.

*Animaliak eta gizakiak ondo portatzen ziren; tximistak, aldiz, ez. Hori dela eta, zerura eraman zituzten, eta han daude betiko gordeta, baina gizakiak surik gabe geratu ziren. Orduan, **Bumba/Bumbak (?)** sua egiten irakatsi zien, zuhaitzetako adarrak erabiliz.*

***Bumba/Bumbak (?)** oso pozik geratu zen bere lana ikustean, eta gizakiei esan zien sortutako guztia beren gozamenerako zela.*

Esaldi batzuetan “k” dago, baina beste mota batekoa da. Ez du adierazten **nork** edo **zerk**, baizik eta **zer** edo **nor**.

Ikus ditzagun hurrengo esaldi hauek:

***Bumbak adarrak erabili zituen sua egiten irakasteko.**
Bumbak tximistak zerura eraman zituen.*

Kasu honetan, “k” letrak adierazten du “zer” ekintza egiteko erabili den objektua edo izakia, eta, gainera, objektu hori bat baino gehiago dela.

Marraz itzazu hurrengo esaldiok:

Bumbak Tximista zerura eraman zuen.	Bumbak Tximistak zerura eraman zituen.
Bumba Tximistak zerura eraman zuen.	Bumba Tximistek zerura eraman zuten.
Eguzkiak iluntasuna urratu zuen.	Bumbak Eguzkia jaurti zuen.

Bumbak Tximista zerura eramán zuen.	Bumbak Tximistak zerura eramán zituen.
Bumba Tximistak zerura eramán zuen.	Bumba Tximistek zerura eramán zuten.
Eguzkiak iluntasuna urratu zuen.	Bumbak Eguzkia jaurti zuen.

3. EKOIZPENA

Demagun zuk eta beste ikaskide batek mundua eta gizakiak sortu zenituztela. Zuen lanaren emaitza ikusita, zer egingo zenukete?

Sortu elkarrizketa bat:

Gogoan izan:

- Hitz egiten duen pertsonaia adierazteko bi aukera daudela:
 - a) Izena jartzea eta marratxoa (“_”): EGUZKIA_, TRUMOIA_
 - b) Izena jartzea eta bi puntu (“.”): EGUZKIA: , TRUMOIA:
- Ondo jarri esaldi-bukaerako puntua eta paragrafo-bukaerakoa.
- Antzezpenean, puntuazio-zeinuek adierazten dutenari eutsi behar dio ahotsak.

Gidoi literarioa:

GIZAKIA NOLA SORTU ZEN (HEGO AMERIKA)

MARI: Goseak nago, Mokamaya. Mokadutxo bat jango dut. Zuk ere nahi al duzu?

IRATI: Bai.

MARI: Taloa prestatuko dut. Ekarri arto-irina. (OFF) Ui! Erre ez naizenean!

IRATI: Mari, ez dut aurkitzen.

MARI: Ezin liteke. Lehengo egunean eho nuen, eta soberakina kaiku batean gorde nuen. Ez duzu aurkitzen, ala ez dakizu nolakoa den?

IRATI : Ba, ez dakit nolakoa den.

MARI: Banengoen ba! Izan ere, gaur egun, oso gutxi erabiltzen da. Zuek, arto-irina erabili beharrean, gari-irina erabiltzen duzue eta.

MARI: Begira, arto-irina horixka da. Eta, jakina, zuk ezagutzen duzuna zuri-zuria da. Erakutsiko dizut nola egiten den. Orain ez da hau egiten, baina erakutsiko dizut nola egiten zen. Arto-aleak hartu eta txikitu egiten dira, birrindu arte. Proba egin nahi duzu?

IRATI: Bai, utzi egiten.

IRATI: Ufa! Bai gogorrek daudela!

MARI: Pentsa zer-nolako lan gogorra izan behar zuen familia osoarentzat irina ehotzeak.

IRATI: Eta, gainera, opilak egitea!

MARI: Bai. Gaur, dendara joan eta kito!

IRATI: Bai, baina bestelako lanak egiten ditugu.

MARI: Badakit. Tira, zenbat irin ehoko duzu? Har ezazu zuk ere, eta egin.

MARI: Hara! Kontuz ibili, bizia har lezake eta!

IRATI: Zer?

MARI: Bai, entzun duzuna. Bizia har lezakeela. Horixe bera esan dizut.

IRATI: Ez dut ulertzen.

MARI: Broma bat da. Izan ere, kondaira bat gogorarazi didazu, Erdialdeko Amerikako kondaira bat.

IRATI: Zein?

MARI: Gizakien sorrerarena. Nahi duzu kontatzea?

IRATI: Bai.

MARI: Kobazuloaren atarian jesarriko gara, zerua ikusteko. Hara, Maia herriaren sinesmenen arabera, hasieran zeruak eta itsasoa baino ez ziren. (OFF) Maiek hamahiru zeru zirela uste zuten, bata bestearen gainean eta denak Lurraren gainean. Zeru bakoitzean, *Oxlahuntiku* jainko bat bizi zen. Lurra krokodilo baten isatsaren gainean zegoen, eta krokodiloa itsasoan zegoen.

MARI: (OFF) Lurraren azpian, bederatzi mundu ziren, eta haietako jaunak *Bolontikuak* ziren. *Bolontikuek* txandaka gobernatzen zituzten beren munduak.

IRATI: Eta itsasoa zeren gainean zegoen haien ustez?

MARI: Ez dakit, ez zuten esan.

IRATI: Eta gu, gizakiok, nola bizi ginen?

MARI: (OFF) Hasieran, ez zen izaki bizidunik. Itsasoko ura, geldi-geldi, eta zerua besterik ez zen. Isiltasuna zen nagusi. Baziren, ordea, jainkoak, jainko sortzaileak. Suge lumadun argitsuak ziren. Imajina itzazu jainko boteretsu haiek denak elkartuta. Bada, behin, animaliak sortzea erabaki zuten. Trumoiak hitz egin zuen lehenengo.

TRUMOIA: (OFF) Sor daitezela landareak! Sor daitezela animaliak!

MARI: (OFF) Eta animaliak sortu ziren. Hasieran, oreinak, jaguarra eta arrainak.

TRUMOIA: (OFF) Dena isilegia da. Sor daitezela txoriak.

MARI: Eta horrela gertatu zen. Isiltasuna urratu egin zen txorien kantuekin.

IRATI: Nire hitzek horrelako boterea izango balute, ederra pagotxa!

IRATI: Eguna argi dadila!

MARI: Horrek ez du balio, egunsentia da eta.

IRATI: Jainkosa izatean zer sentitzen den jakin nahi nuen!

MARI: Oi! Gure opiltxoak! Erre egingo dira!

MARI: Ai, nire opiltxoak! A, ondo daude.

IRATI: Zer usain gozoa!

MARI: Zer jarri nahi diezu? Eztia ala gurina?

IRATI: Biak.

IRATI: Aizu, Mari, eta gu noiz sortu gintuzten?

MARI: Geroago.

TRUMOIA: (OFF) Animaliek ez digute oparirik egiten, ez digute esker ona adierazten.

EGUZKIA: (OFF) Beste izaki bat sortu behar dugu, hitz egiten dakiena, eta, hartara, eskertuko digu sortu izana.

TRUMOIA: (OFF) Nola egingo dugu?

EGUZKIA: (OFF) Buztinez.

TRUMOIA: (OFF) Horrela ezin da. Urak urtu egiten du.

EGUZKIA: (OFF) Orduan, zurez egingo dugu.

TRUMOIA : (OFF) Oraingoan ere ez dugu bete-betea asmatu. Ezin da mugitu, eta, hortaz, hitz egin ere ezin du.

EGUZKIA: (OFF) Egin dugunak ez du ezertarako balio. Hau lardaskeria! Ez dut ikusi nahi.

MARI: (OFF) Orduan, arto-irina erabiltzea pentsatu zuten. Orea prestatu zuten, eta gorputza egin zuten. Horregatik esan dizut kontuz ibiltzeko, zuk egin duzun panpinatxoak bizia har lezakeelako.

IRATI: Bai zera! Hori kondaira bat da. Ez da egia!

MARI: Badakit, baina ez esan ez dela polita!

IRATI: Nola dakizu?

MARI: Liburu batean irakurri dut. Erakutsiko dizut. Izenburua *Popol-Vuh* du. Begira, hauek jainkoak eta jainkosak dira. *Itzamná* suaren eta bihotzaren jainkoa da, eta bizia eta heriotza irudikatzen ditu. Hau Eguzkiaren jainkoa da, *Kinich Ahau*, eta *Ixchel* jainkosarekin dago, Ilargiarekin alegia.

MARI: (OFF) Hauek zeruari eusten diote. *Bacabs* deitzen dira. Bakoitzak norabide bat seinalatzen du: gorriak ekialdea, zuriak iparraldea, beltzak mendebala, eta horiak hegoaldea. Badakizu zergatik?

IRATI: Bai, oso argi dago: Iparra elurrarekin eta hotzarekin erlazionatu dutenez gero, zuriz margotu dute. Mendebala gauarekin erlazionatu dutenez gero, beltzez margotu dute. Ekialdea edo sortaldea Eguzkiarekin erlazionatu dute; beraz, gorritz margotu dute.

MARI: Eta horia?

IRATI: Hegoaldera joan ahala argiagoa izaten delako?

MARI: Bai, izan daiteke.

IRATI: Eta zuhaitz hori?

MARI: Zuhaitz sakratua da: *Zeiba* deritzo. (OFF) Honako hau, sudur handi eta luzea duena, *Chac* euriaren jainkoa da. Jainko bakarra izanagatik, ugaldu egiten da, eta *chac* edo jainko asko legez agertzen da. Hauek dira beren kalabazak hustuz eta harrizko aizkorak jaurtiz euria sortzen dutenak.

MARI: (OFF) *Uo* igelak dira haren laguntzaileak, eta euria iragartzen dute. Beste alde batetik, *Ah Mun* artoaren jainko gaztea dago. Landarezarekin eta janariarekin lotua dago, artoa baitzen oinarrizko jakia maientzat eta kolonaurreko beste zenbait herrirentzat. *Ah Mune*k sarri egiten zuen borrokan *Ah Puch* heriotzaren jainko eta bederatzigarren infernuko jaunarekin.

MARI: (OFF) Lehen esan bezala, artoa zen maien labore garrantzitsuena eta jaki oinarrizkoena. Horregatik adierazten dute artoaren bitartez gizakien sorrera. Entzun ondo haien hitzak: “Arto horiz eta arto zuriz egin zen gizakiaren haragia, eta arto-orez haren beso eta hankak. Arto-oreaz baino ez zen mamitu gure gurasoen haragia, hasierako lau gizakien haragia.”

Garrantzitsua bezain jakintsua izan zen maien zibilizazioa, astronomia ere landu baitzuten. Kopan izan zen astronomia landu zen guneeetako bat. Astronomoen bilerak egiten ziren han. Argazkian ikus

dezakezue bilera horietako bat. Hara! Hamasei astronomo agertzen dira Ku deritzon aldarearen inguruan. Lau alde bakoitzean. Ku aldare hori bilera haietako baten oroimenez eraiki zuten. Maiek hamahiru zeru zeudela uste zuten, Lurraren gainean jarritako hamahiru geruzak. Zeru bakoitzak bere jainkoa zuen, eta Oslauntiku zeritzen jainko haiei. Lurra itsas azalean zebilen krokodilo edo narrasti izugarri handi baten isatsaren gainean zegoen. Lur azpian ere baziren bederatzi mundu, bata bestearen gainean jarritako bederatzi geruza. Bolontiku jainkoek txandaka gobernatzen zituzten mundu haiek, bederatzi gauez osaturiko txandetan. Denborak ez zuen ez hasierarik, ez amaierarik; elkarren atzetik zetozen ziklo edo aldi amaigabeak ziren. Noizean behin, kataklismo edo hondamendiren batek eteten zuen zikloa, eta hasierako anabasa oinarrizkora itzultzen zen dena, baina mundua ez zen sekula ere amaituko, palingenesian sinesten baitzuten maiek. Palingenesia unibertsoa ziklikoki birsortzen dela sinestea da. *Txilam balam* liburuek iragartzen dituzte suntsitze eta birsortzezko ziklo horiek. Esate baterako, bederatzi jainkoen matxinadaren ondorioz gertatu zena.

BIBLIOGRAFIA.

- AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.
- Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.
- DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia
- BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia
- BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.
- CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona
- GUEL BENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.
- AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.
- El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.
- PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.
- GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya
- TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya
- BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

Egileak

GOIATZ MULTIMEDIA, S.L.

PRODUKTOREA:

Luisa Calvo

EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:

Luisa Calvo

GIDA DIDAKTIKOA
EUSKARAKO ARDURADUNA:

Joan Ignazio Bereziartua

ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:

Mikel Val

SOINU-BANDA:

Inhar Val

EDIZIOA:

Goiaz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:

Goiaz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:

Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M^a Rodríguez

K2000 S.A.

Produktore exekutiboa:
Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:
Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:
Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:
Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:
Monika Erdozia
J. L. Irigoien
Pedro Arrieta
Ana T. Bengoetxea
Ramón F. De Castro
Kepa Kuetto
Jon Goirizelaia
Tere Jaio
Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:
Ricardo Goti
Antonio González
Javier Artetxe

Nahasketak:
Gorka Lara
Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:
Ana Urresti

Koordinatzailea:
Jon Arce

EIMA 2000

Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate
eta Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena du:
2008/05/14

LEGEZKO GORDAILUA: SS-1497/05

Copyright 2007:

L.C. PRODUKTOREA